

ERAKUNDE ADIERAZPENA, 2019KO MARTXOAREN 8KO GREBA

FEMINISTAREN ALDEKOA

Mugimendu feministak, erakunde eta talde politiko, sozial eta sindikalen babesarekin, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, greba orokorra egiteko deialdia egin du gure geografiaren luze-zabalean.

Deialdi honek salatu egin nahi ditu munduko biztanleen erdiek baino gehiagok – emakumeok– jasaten ditugun desberdintasunak, diskriminazioak eta egiturazko indarkeriak, eta beste gizarte eredu bat aldarrikatu nahi du, bidezkoa, demokratikoa eta berdintasunean oinarritua.

Sistema kapitalista eta patriarkal baten aurkako greba feminista izango da, emakumeok jasaten ditugun desoreka estrukturalak halako larritasun mailara eta neurrira eramanez dituen sistema baten aurkakoa. Eta horregatik, ezinbestekoa da kaleak, erakundeak eta lantokiak hartzea, frogatzeko gu gabe mundua gelditu egingo litzatekeela.

Aurtengo greba feminista 24 ordukoa izango da, eta bost ardatz hauek izango ditu nagusiki: zainketak, lana, pentsiodunak, ikasleak eta kontsumoa. Arlo horiek zuzeneko eragina dute lan ordainduan eta ez ordainduan, kontsumo eremuan, sexualitatean, arrazismoan eta abar.

Kontuan izanda bizitzari eusteko lan guztiak direla beharrezkoak, hala ordainduak nola ordainduak ez direnak, espazio pribatutik atera behar ditugu zainketak, gehienbat emakumeoi egokitzen zaizkigunez gero; horrek esan nahi du sozializatu egin behar dela etxeko lanen eta zainketen erantzukizuna, eta gizonen, bai eta erakunde eta entitate publikoek ere, beren gain hartu behar dutela zuzeneko erantzukizun hori.

Estrategikoa eta giltzarria da denboraren erabilera orekatzea, berdintasun politikak eraginkorrak izango badira. Europako berdintasun adierazleetan azaltzen diren erreferentziazko eremuen artean, denboran esku hartzeak aldaketak ekarriko ditu boterearen jabetzan, ezagutzan, ekonomian eta enpleguan.

ERAKUNDE ADIERAZPEN hau aurkezten dugu, Bozeramaileen Batzordean azter dadin:

Donostiako Udalak agintzen du:

1.- Babesa emango diola emakumeen greba orokorrari, eta greba egiteko aukera emango diela Udalbatzako kideei nahiz Udaleko langile diren emakumeei.

2.- Dei egingo diela herritarrei Mugimendu Feministak martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatuko dituen mobilizazioetan parte hartzera.

3.- Pankarta bat jarriko duela udaletxeko balkoian eta kolore morez argiztatuko duela fatxada.

Donostia, 2019ko otsailaren 20a

Sin.: Jon Insausti
EAJren bozeramailea

Sin.: Ernesto Gasco
PSE-EEren bozeramailea

Sin.: Amaia Almirall
EHBilduko bozeramailea

Sin.: Miren Albistur
PPren bozeramailea

Sin.: Amaia Martin,
IRABAZIren bozeramailea